

B

BARREN

Duintasuna azalera

TOKIKOM



SAN PEDRO

J A T E T X E A

jaixak ondo pasau!

Aurrez enkargatuz gero hobee!

SAN PEDRO AUZOA
Tel. 943 740 010
ELGOIBAR



Alzolako Urak bezero eta bizilagunei
San Juan jai zoriontsuak opa dizkizue.

Jai zoriontsuak



www.Alzola.com



Arkaitz Irureta

Kaleko unibertsitatian ibilli giñanon artian, adin jakin batian gaztelera-ra jo izan diagula onartziak lotsa ematen zidak, Justo.

Modernua, guay-a, eta zergaittik ez, iraultzaillia ere bazuan.

Garai hartan beste herri eta eskoletako jendiakin ere gaztelera jardu-ten genduan, pentsatzen juat heu bezela eskolan gaztelera ikasitako jendiarekin ere bai. Orain harrittu nauk ze maillatoko euskaraz mintzatzen diran entzutian, euskara bazekixenik ere ez nintzuan konziente. Euskararen ezagutza ukaezina dok, baiña erabilleria? Ezin al diagu beste herri batzutako eredia jarraituaz euskara kaleko hizkuntza bihurtu Elgoibarren?

“Euskararen ezagutza ukaezina dok, baiña erabilleria?”

Azken aldixan Gasteiz aldetik ibiltzen nauk, eta harrituta nagok hango batzuren konpromisoarekin. Batzuk ikastoletan ikasi ahal izan ziaten, baiña gaiñontzeko asko gehienez B eredian ibillitakuak dittuk, eta etxian gaztelera izan debe hizkuntza bakarra. Euren konpromiso eta sakrifizioz ikasi diate euskara, eta hitzegiterakuan akats asko egin arren, ez juek hitz bat gaztelera egitten, Gasteizen txo! Veleiaren ondorenguek-salbatuko ote juek euskaria?

Aurrekuan hirekin egondako Atlantiar kongresuan Euskara Europa maillako altxorra zela entzun nien munduko unibertsitate garrantzitsuetako ikerlarixei. Kanpotik etorri bihar ingelesez hori esatera! Positibua izan zuan, baiña ohitturia kalian berreskuratu ezian, jai daukagula konbentzitura nagok.

Hik zela ikusten dok, Justo?



Justo Arriola

Nere esperientzia bestelakua izan dok, Arkaitz. Kolonizazua sehaskan hasi zuan. Base-rrixan lau hankatan nabillenen gaztelania entzuten najuan Salontzoko maistria, katezismo eta guzti, gurian bizi izan zuan-eta. Gerotxuago Francoren erretratuaren peko klasiak Pedro Murguruza (aldatuko al jauk izena kalia) eskolan, eta TVE zuri-beltzian aillegau zittuan. Ordurako osabaren errietek euskeraz egiñ geixan kontrako efektua lortzen juen. Eta institutuan BARRENEKO kidea dan Andresen nor-nori-nork-ekin endredatzen nitzuan.

Beraz, gaztetan kaleko unibertsidadian matrikulatu nitzuanian “naturala” izan zuan erderaz egittia. 1980ko hamarkadan bizi izan najuan girua eta gogoko musika taldiak erdaldunak zittuan gehixen bat, nahiz eta asko euskaldunak izan. Iraultzaillia? Ez, gizona. Ohitturia, joeria, automatismua esango neikik.

“Gure altxorrik preziatuena bizirik nahi bajuagu, konpromisua da giltza”

Harro nagok oiñ bost urte AEKn sartzera animatu, eta alfabetatu eta idazten ikasi najualako. Egixa dok askotan galdetzen diodala neure buruari zertan gabizen erderaz bixok (edo hirurok, laurok...) euskeraz dakigunian.

Adituei entzun aurretik ere zalantza gitxi najaukan euskaria Europako hego-mendebalde honetako haitzuluak margotzen juenen hizkuntzatik datorrenaren gaiñian.

Zela ikusiko juat ba, Madonna bera berba batzuek euskeraz esaten hasi badok. Ez, serixo. Gure altxorrik preziatuena bizi-bizirik nahi bajuagu hire Gasteizko lagunen giltza erabilli besterik ez dagok: konpromisua.

ESKERTZA

LUIS LARRAÑAGA ODRIA



2012ko ekainaren 19an hil zen. Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak hala nola hileta elizkizunetara agertu izana.



Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR
☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARRE**Nek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea,
Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA
Ainara Argoitia PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz MAKETAREN
DISEINUA Jaione Unanue KOLABORATZAILEAK
Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres
Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola,
Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai
Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus
Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes
Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa
Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga,
Amaia Larrañaga INPRIMATEGIA Gertu Koop.
E. TIRADA 4.800 ale LEGE GORDAILUA SS-
1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:




Laguntzaileak:



ELGOIBARKO LEKIA



MENDAKO UDALA



BARRENeK ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Hamaika gara! Selektzio bat, hizkuntza bat, herri bat!

Larunbat honetan Euskal Herria Kirolak, Kontseiluak eta ESAITek Donostian aldarrikapen jai nagusia antolatu dute, hain zuzen euskaraz bizitzeko aldarrikapena, selektzio bat izateko aldarrikapena eta munduaren aurrean nazio bezala lehiatzeko aldarrikapenak uztartuko dituzte jaiak. Euskal Herria eta Slovakiaren arteko emakumezkoen futbol partida izango da ekimen nagusia, baina horrez gain antolatzaileek 10:30etik aurrera kontzertuak, desafioak, umeentzako ikuskizunak eta hainbat sorpresa izango direla hitz eman dute *Hamaika gara! Selektzio bat, hizkuntza bat, herri bat!* lelopean.

Gure selektzioaren partida historiko horrek herri bezala, garen bezala agertzeko aukera eskainiko digu. Partida selektzioko hamaika jokalarik jokatu dute, baina parean Euskal Herriko selektzioen ofizialtasunaren aldeko jaia, euskaraz bizi nahi dugunon jaia, parekidetasunaren aldeko jaia, herritarren parte-hartze zuzenaren aldeko jaia izango dela garbi dago. Horregatik guztiagatik, egun horretan, kirolzaleok, euskaraz bizi nahi dugunok, parekidetasunaren aldeko, haur eta gurasook, gazteok, aldarrikapena eta festagiroa uztartu nahi dugunok... ekainaren 23an hitzordua dugu Anoetako estadioan. Goazen denok!

A.Z.I. ©

ESKUTITZEI BURUZKO ARAUDIA

BARRENeN edozein gutun argitaratu ahal izateko, honako baldintza hauek bete beharko ditu nahitaez:

1. Eskutitz guztiak identifikatuak egon behar dute: izen-abizenak, telefono zenbakia eta NAN zenbakia derrigorrezkoak dira.
2. 1.500 karaktere izan behar ditu gehienez eskutitzak.
3. Eskutitzak izen-abizenen inzialekin edota izen-abizenekin argitaratuko dira. Ezizenarekin ezingo dira sinatu gutunak. Onartu egingo ditugu identifikagarriak diren taldeak: "Ikastolako irakasleak", esaterako. Bestalde, sinatzailearekin batera beste lagun batzuk ere daudenean, hauek ere identifikatuta egon behar dute.
4. Pertsona eta erakundeek gutun-egilearen izen-abizenak jakiteko eskubidea izango dute gutun horretan euren izena aipatu edo erreferentziaren bat egiten bada eta gutuna inzialekin sinatuta badago.
5. Ez dira onartuko: biraoak, gutun iraingarriak eta errespetu faltaz idatzitakoak, buzoneatzeko edo kale banaketa egiteko idatzitako idazkiak, pertsona eta erakundeei zuzenduriko mehatxuak...
6. Ez dugu gaztelerez datorren eskutitzik argitaratuko.



Zabor edukiontzia gainezka egoten dira: “Lurrazpiko zabor edukiontzien sistemak ez du funtzionatzen. Erraz betetzen dira, eta zaborra kanpoan utzi behar izaten dugu. Antonio Arrillaga kaleko edukiontzien inguruan zabor asko pilatzen da, eta Aita Agirre plazan ere bai. Zaborra sarriago jaso behar-ko litzateke, edo beste sistemaren bat martxan jartzea aztertu behar-ko luke Udalak, baina horrek oso irudi txarra ematen du”.



Mekanikako aparkaleku inguruko lurra hondatuta dago: “Mekanikako aparkaleku inguruan lurra erabat hondatuta dago. Autoek edozein modutan aparkatzen dute askotan, eta oinezkoek ez dute izaten pasatzeko lekurik. Inguru hori hobeto zaindu behar da”.

Gabriel Krutzelaegi kalea ez dute behar beste garbitzen: “Zapatu arratsaldetan gazte asko etortzen dira Gabriel Krutzelaegi kaleko etxeen atzeko aldera botilioa egitera, eta gero dena zikin-zikin lagatzen dute. Baina zikinkeria baino larriagoa da dena kristalez beteta geratzen dela. Kristalak zapalduta, zauri larriak egin ditu nire txakurrak. Umeak ere sarri ibiltzen dira ingurune horretan jolasean, eta benetan arriskutsua iruditzen zaigu. Udaltzainei deitu izan diegu, baina herrigunea zaindu behar dutela erantzuten digute. Guk herrigunekoek bezalaxe ordaintzen ditugu zergak, eta beste tratamendu bat merezi dugula iruditzen zait”.



Eskerrik asko lurreko trafiko seinaleak margotzeagatik: “Txanakuako errotondan lurreko seinaleak ez ziren ondo ikusten, eta zenbait unetan nahasmena sortzen zen. Jende askok uste zuen Santa Klara auzotik datorrenak daukala lehentasuna, eta ez da horrela, eta lurreko seinaleek argi erakusten dute. Denbora luzez egon dira seinaleak ezabatuta, baina azkenean margotu dituzte. Beraz, mila esker”.



Mila esker, Ana Ansola piano irakasleari: “Eskerrik asko zure ikasleak horren ondo zaintzeagatik. Maitasun eta gogo handiz eskaintzen dituzu eskolak, eta oso ondo hartzen gaituzu. Zure ikasleak”.



Zuon kezak, galderak edo txaloak bidaltzeko: barren@elgoibarkoizarra.com / 943-741 626

IMHko Txandakako Ingeniaritza Eskola eredu gisa aurkeztu dute Madrilen, Diputatuen Kongresuan

Gaur eguerdian banatu dituzte IMH Sariak

Lanbide Heziketan ez ezik Unibertsitateko irakaskuntzan txandaketa-prestakuntza sustatzeko mozioa aurkeztu du EAJK Espainiako Diputatuen Kongresuan, eta gehiengo handiz onartu dute mozioa, Ezker Batua izan da-eta, kontra bozkatu zuen alderdi bakarra. Mozioa aurkezterakoan Elgoibarko Makina Erremintako Institutuko Txandaketa-Ingeniaritza Eskolaren ereduaz azaldu eta defendatu zuen Arantza Tapiak, Diputatuen Kongresuan EAJren Euzko Abertzaleak taldeko diputatuak, Jose Ignazio Wert Hezkuntza ministroari zuzendutako premiazko interpelazioan. 1994an martxan jarri zutenetik ia 500 ikaslek egin dute Txandakako Ingeniaritza IMHn, eta arlo guztietako 273 enpresen babesba jaso du egitasmoak. Emaitzeekin ere oso gustura daude arduradunak. Hala, ikastetxeak emandako datuen arabera, 2008a baino lehen ikasketak amaitu zituzten ikasleen %95ek lana topatu zuten ikasketak amaitu osteko lehen hiru hilabeteetan. 2008az geroztik, krisi garaian, alegia, %90era jaitsi da enplegarritasun tasa. Hamar ikasletik zortzik prestakuntza egin duten enpresan bertan lortu dute lana.

EAJK gonbidatuta Kongresuko eztabaida zuzenean jarraitzeko aukera izan zuten Xabier Ortuetak (AFMko zuzendaria), Joxean



Alvaro Blanco Caceresek ikasle ohi aipagarrienaren saria jaso du.

Egañak (IMHko Zuzendaria), Alfredo Etxeberriak (Elgoibarko alkateta) eta Ixaka Egurbidek (Txandakako Ingeniaritza Eskolaren Zuzendaria). Argazkian, Josu Erkoreka eta Arantza Tapia EAJko parlamentariekin ageri dira, Espainiako Kongresuaren atarian.

IMH Sariak

Gaur eguerdian, bestalde, 2012ko IMH Sariak banatu dituzte, Lanbide Heziketako ikasleei errekonozimendua egiteko. Ikasle ohi aipagarrienaren saria Alvaro Blanco Caceres elgoibartarrak jaso du. 1998-2000 urteetan egin zuen IMHn diseinuko goi-mailako zikloa, eta, egun, Azkoitiko Ibarmiako salmenta arloko zuzendaria da. IMHn ikasketak amaitu ostean, Geminisen egin zituen praktikak, eta, ondoren, Goratun egin zuen lan, Ibarmian hasi zen arte.

Ikasle aipagarriaren saria Ermuko Gorka Etxeberria Gorrotxategiri eman diote. Muntaiko goi-mailako heziketa zikloko ikaslea da. Fabrikazio Mekanikoko ikasle aipagarria, bestalde, Debako Aritz Jauregi Gorrotxategi izendatu dute, eta ikasle elgoibartar aipagarrienaren saria Urtzi Etxabe Mujikari eman diote. Muntaiko goi-mailako heziketa zikloko ikaslea da. Ikasle guztiek 8tik gorako batezbesteko nota ateratu dute.



Mendaroko kaltetan zahar bat berreskuratu dute auzolanean

Hamar bat lagunek jardun dute bi zapatutan auzolanean, Mendaroko kaltetan zahar bat berreskuratzen. Errementari berririk Erentzara arteko tartea garbitu dute, baina lan honek segida izango duela aurreratu dute. Mendaroko Udalak eskerak eman dizkie auzolanean parte hartu dutenei, eta kaltetan zahar gehiago berreskuratzeko lanari eusteko asmoa erakutsi du.

Pertsonaia Jose Luis Garate Goihartzun



Jose Luis Garate Goihartzun jesuita hil da Caracasen, 80 urte zituela. Anaia Roman eta Gotzon bezala, jesuita zen, eta 17 urterekin Venezuelara joan zenetik irakaskuntzan eta parrokiako lanetan jardun du azken unera arte. Gustura etortzen zen Euskal Herrira, baina Venezuelako premiak lehenesten zituen, eta han hil da.

Bandoa Txakur kakak

Txakur jabeei eskutitz bana bidali die Mendaroko Udalak, txakur kakak jaso ezean isunak jaso ditzaketela ohartarazteko. Ohar horretan, Mendaroko Udalak dio txakur kakak batzea jabeen ardura dela eta herritarrek eskubide osoa dutela txakur kakak batzen ez dituztenei kargu hartzeko. Txakur kakak batzen ez dituztenei 30,05 eurotik 300,50 eurora arteko isunak jarri ahal dizkietela jakinarazi du Udalak.

Irudia Sanloren denboraldi amaierako festa

Denboraldi amaierako festa egin zuen Sanlok zapatuan, Elgoibar Ikastolako pistetan. Ekitaldian, Sanloren talde bakoitzeko jokalaria bat nabarmendu zuten, urtero egin ohi duten moduan, eta Sanlo eskubaloi taldearen bufanda munduan zehar erabili dutenen artean opari batzuk zozketatu zituzten. Era berean, Orbeak emandako bi bizikleta ere zozketatu zituzten jaiaren parte hartu zuten guztien artean (www.sanlo.net webgunean duzue irabazleen zerrenda). 500 lagun inguru batu ziren Sanloren festan, eta antolatzaileek balorazio positiboa egin dute. Horren harira, Klubak eskerrak eman dizkie Sanloren familia osatzen duten guztieei, laguntzaileei, babesleei, Elgoibar Ikastolari eta Udalari.



Udako ikastaroetan izena emateko epea zabaldu du DEBABE Udal Euskaltegiak

DEBABE Udal Euskaltegiak jakinarazi du zabaldu duela udako ikastaroetan izena emateko epea. Ikastaro berezia eskainiko dute EGA eta HABEren hirugarren mailako bigarren deialdia prestatzeko. HABEK eta Elgoibarko Udalak diruz lagundutakoak dira ikastaroak, eta prezio bereziak daude langabetu, guraso, ikasle eta jubilatuentzat. Informazio gehiagorako: 943 742 731 edota elgoi.euskal@udal.gipuzkoa.net.

Gaur bukatuko da Elgoibarko pintxo lehiaketa

Gaur duzue azken eguna Elgoibarko pintxo lehiaketan parte hartu duten tabernariak aurkeztu dituzten mokadutxo goxoak dastatzeko. Guztira, Elgoibarko 21 tabernak parte hartu dute aurten lehiaketan. Martitzen hasi zen pintxo lehiaketa, eta orain artekoan estimazio handia izan dute pintxoek. 1,10 euroan jarri dituzte salgai pintxoak. Herritarrek aukera dute pintxorik onena zein den bozkatzeko, eta parte hartzen duten guztien artean, Belaustegin bi lagunentzako dastatze menu bat zozketatuko dute.

Bi lagun atxilotu zituzten zapatuan indarkeria erabilita lapurreta egitea leporatuta

Elgoibarko udaltzainek eta ertzainek bi lagun atxilotu zituzten joan zen zapatuan, indarkeria erabilita lapurreta egitea egotzita. Ertzaintzaren arabera, zapatu gauean, 23:00ak aldera, hiru lagunek beste bat nola inguratzen eta "jipoitzen" zuten ikusi zuten Ertzaintzaren patruilla bateko kideek, Urazandi kaleko lehen etxebizitza bloke azpiko pasabidean. Praketako poltsikoan eskua sartu eta diru-zorroa nola osten zioten ere ikusi zutela adierazi dute. Ertzainek inguruan zebiltzan udaltzainei jakinarazi zieten ikusitakoa, eta elkarrekin bertaratu ziren. Atxilotuetako batek 18 urte ditu, eta besteak 16.



Sallobentera joan-etorria egin zuen marea horiak bizikletaz

Herri Eskolako guraso elkarteak antolatuta, bi erroberatan joan ziren hainbat herritar Kalegoen plazatik Sallobentera. Bizikletaz ibiltzea osasuntsuagoa eta dibertigarriagoa dela aldarrikatu nahi dute antolatzaileek ekimen honekin, eta bide batez, ibilbide laburretan bizikleta gehiago erabiltzea sustatu. Ume zein nagusiek izan zuten lekua Elgoibar bi erroberatan ekimenean, eta ondoren, moto lasterketa egin zuten etxeko txikienek Errosario eta San Bartolome kaleetan. Argazki gehiago ikusteko: www.elgoibarren.net





Erretratu zaharra



1972

Aste honetako erretratu zaharra Ainhoa Castrillejok ekarri du BARRENERA. 1972. urteko erretratua da, eta seguruenik, neska koa-drila horietakoren baten ezkon aurreko agurra ospatuko zuten egun horretan. Gogora ditzaguz zeintzuk diren argazkian azaltzen diren emakumeak:

Goian: Loli Astigarraga, Pakita Gabilondo (†), ezezaguna, Blanca Beristain, Milagros Osoro. **Erdian:** Encarna, Fernando Beristain-en emaztea, Maritxu Agirre, ezezaguna, Pilar Garate, Pepita Mugertza (†), Lupe Castrillejo, ezezaguna, Nieves Unanue. **Aurrean:** Lolita Uribe, ezezaguna, Juanita Gabilondo (†), ezezaguna, ezezaguna, Carmen Arrese.



I. URTEURRENA

JUANI IZAGIRRE ARRIZABALAGA

2011ko ekainaren 27an hil zen, 72 urte zituela.

Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, zapatuan, ekainak 23, arratsaldeko 19:00etan Elgoibarko Bartolome deunaren parrokian.

Joango zaretenoi eskerrak aldez aurretik.



ESKERTZA

JOSE LUIS GARATE GOIHARTZUN

“Bizia besteei laguntzen igaro ostean joan zara.

Zuk emandakoaren fruituak han eta hemen, orain eta beti loratuko dira”

Bihotz-bihotzez ilobak



GUDARIEI OHORE ZIRARDAMENDIN



Lekukoak eta instituzio publikoetako ordezkariak, zapatuan, 36ko gerran hildako gudarien gorpuzkinen aurrean.

Garaituen tragedia bistaratu zuten zapatuan Aranzadi Zientzia Elkarteak, Elgoibar 1936 taldeak eta Markinaldeko Ahaztuen Oroimena elkarteak Zirardamendin. Inguruko baserrietako jendeak, eta, bereziki, Bitorio Agotek eta Felix Etxeberriak emandako lekukotzei esker, 1936ko gerran Francoren kontra jardun zuten lau gudarien gorpuzkinak atera dituzte lur azalera, eta era horretan, duintasuna itzuli die gerra hartan askatasunaren alde bizia eman zutenei eta haien senideei.

Urteetako isilunea hautsi zen zapatuan Zirardamendin, gudariei egindako omenaldian. Lekukotzak eman dituztenez gain, eta Elgoibar 1936 eta Markinaldeko Ahaztuen Oroimena elkarteetako ordezkariak gain, Zi-

rardamendin hildako Felix Arbulu Bilbao gudariaren iloba batek [Joseba Tobar Arbulu], Xabier Arrizabal *Ziarda* bertsolariak, Haritz dantzari taldeko Haritz Arrietak, Martin Gari-tano Gipuzkoako ahalzun nagusiak, Joseba Egibar GBBko lehendakariak, Bittori Zabala Elgoibarko Berdintasun Saileko zinegotziak eta Ines Ibañez de Maeztu eta Marina Bidasoro Jaurilaritzako eta Foru Aldundiko Giza Eskubideen Saileko zuzendariak parte hartu zuten. Errepublikaren, Euskal Herriko askatasunaren eta Eusko Jaurilaritzaren aldeko borrokan hil zituzten gudarien alde, Elgoibarko Udalak onartutako adierazpena irakurri zuen bertan Zabalak. [EAJ, Bildu eta PSE-EE alderdien botoekin onartutakoa]. Jendetza handia batu zen omenaldira, eta ekitaldian zuzenean parte hartu zutenez gain, Zirarda-

mendin zeuden Markel Olano Gipuzkoako ahalzun nagusi izandakoa, Sabino Arana Fundazioko presidente Juan Mari Atutxa, eta Juan Karlos Alduntzin Gipuzkoako Ingurumen diputatua ere.

Paco Etxeberria eta Lurdes Errasti antropologo eta Aranzadiko kideek zuzendu dituzte indusketak, eta Errastik berak eman zituen azalpenak. "Hemen daukagun hobian lau pertsonaren eskeletoak daude. Laurak gora begira daude (...) Gure dokumentuan jasotakoaren arabera, laurak oso gazteak izan behar ziren, eta hori betetzen da. 19 eta 25 urte bitartekoak izango dira laurak ziur aski". Bitorio Agoteren argibideei esker lekutu dute hobia, eta hantxe zen Agote bera ere, azalpenei adi. Hunkituta zegoela igartzen zitzaien. Bere aitak lurperatutako lau gudariaren

gorpuzkinak zituen aurrean, baina haien sa-soi berean hildako miliziano bat topatu ezin izana zerabilen buruan bueltaka (Aranzadiko-ek beste bi lekutan jardun dute aurrez lanean, baina ez dute aztarnarik topatu).

Testuinguru politikoa

1936ko irailaren 21ean sartu ziren francotarrak Elgoibarren, baina ordurako mendira igota zeuden Gipuzkoatik babes bila eta ihesi zetozen miliziano, anarkista eta abertzaleak. Ordurako, era berean, EAJK bere babesa emana zion Gobernu errepublikarrari. Irailaren 11n sozialisten eta jeltzaleen artean Madrilen izandako elkar-ulertzearen ondotik, Largo Caballeroren Gobernuan karterarik gabeko diputatu izendatu zuten Manuel Irujo EAJKo agintaria, zeinak Jose Maria Lasartekin batera [1936an diputatua eta Eusko Jaurilaritzako informazio zerbitzuko buru izan zen gerra amaitu arte], Euzko Gudarostea sortu zuen irailaren 25ean.

Hala, Euzko Gudarostea sortuta, EAJK frontera joateko deia egin zien gazteei, baina izan ziren, era berean, euren gogoz, herriko batzokietan frontera joateko izena eman zutenak ere. 36ko irailaren 24an, gudariarentzat armak iritsi berritan, hainbat gudari irten ziren Bilbotik Eibarrerantz. Bizkaitarrak ziren guztiak; Abando, Barakaldo, Bilbo, Begoña eta Deustuko batzokietan erreklutatutako 150 bat gazte. Haietako zenbait, tartean Garaizabal eta Zubiaur konpainiakoak, Etxebarritik Urkaregira igo ziren, eta Urkaregitik Aiastia aldera etorri ziren gero, posizioak hartzera. 1936ko irailaren 25ean, baina, eraso gogorra izan zen Zirardamendiko pagadian. Altzola aldetik igotako reketeez ezustean harrapatu zituzten gudari gazteak Zirardamendin, eta hantxe gelditu ziren betiko Miguel Palacios Gomez, Juan Agirre Bilbao, Paulo Beraza, Blas Larrazeleta, Juan Zabala, Ambrosio Etxeberria, Pedro Rodriguez Puig, Jose Txinturreta Zamakona, Felix Arbulu Bilbao eta

Jose Anzueta Mendiola, besteak beste. Jose Maria Otsoa de Txintxetru gudariak bertatik bertara ikusi zuen ikuskizun latz hura. Bera ere zauritu zuten, baina Sagarna baserrira iristea lortu zuen, eta han *cognac* botila erdi hustu zuen, mina arintze aldera. Hari esker lortu zuen Bilbora iristea, berak behin baino gehiagotan kontatu izan duenaren arabera.

Gertaera haren ondotik, borrokaldi gogorak izan ziren Aiastia-Urkaregi aldean, inguruko tontorrek bere egin nahi zituztelako bi aldeek. Urriaren 4an frontea inguru horretan egonkortu zen, eta zazpi hilabetean ez atzera ez aurrera egon ziren bertan.

Egoera horretan, Zirardamendi inguruan gelditutako hilotzak hobiratzeko agindua eman zien Elgoibarko Udalak inguruko base-ritarrei, eta hala egin zuten, besteak beste, Bittor Agoteren aitak eta Ziarda bertako Arri-zabalagatarrek. Orain, 76 urte geroago, argia eman diete Errepublikaren alde hil ziren gudari gazteei.

Joseba Felix Tobar Arbulu, Felix Arbulu gudariaren iloba



Zure osabarena da ustez Zirardamendin topatu duten lau gudarien gorpuetako bat. Gorpuak identifikatu gabe egongo dira ziurrenez oraindik, eta nola iritsi zarete konklusio horretara?

Ez. Printzipioz, bederatziz gorpu zeuden, eta soilik lau aurkitu dira. Lau gorpu horiek Aranzadikoek eraman dituzte hezurak garbitzeko, neurtzeko eta gero hainbat analisi egiteko. Lehendabizi ikusi behar dute ea hezurretan, eta batez ere, hortzetan material nahikoa dagoen ADN (edo DNA) frogak egiteko. Hala baldin bada, gure amarengana etorriko dira gero, amaren DNA ateratzeko. Gero konparaketa bat egingo dute. Prozesu luze samarra da. Eta azkenean gerta daiteke osabarenik ez egotea gorpuzkin horietan, eta lurren mugimenduekin (76 urte igaro baitira) beste nonbait egotea osabarenak, Zirardamendin bertan. Kasu hipotetiko horretan, gure ama

penatua geratuko litzateke segur aski. Hala ere, jende askok lagundu digu prozesu luze honetan, eta guztiei eskerrak ematek aparte, esan behar dut ni neu oso pozik nagoela egindako lanagatik, eta topatu ditudan lagun eta adiskide berriekin. Bihotza orain bitan daukat banatua: erdia Elgoibarko bilakatu da, beste erdia Etxebarrikoa. Hobeto esanda, bihotz osoa bi herri horien erdian, mugan, daukat: Zirardamendin.

Zein zen zure osaba? zein batailotan parte hartu zuen? zer dakizu hari buruz?

Santurtziko Balparda auzokoa zen osaba. Beste lau auzokiderekin batera, Garaizabal konpainian parte hartu zuen. Lau lagun horietako hiruk Zirardamendin osaba nola erori zen ikusi zuten, eta geroago gure amonari eta familiari kontatu zioten. Aitonak elizkizunak egin zizkion Santurtzin, gorpurik gabe, eta Garaizabal konpainiakoak etorri ziren Santurtzira, osabari ohorezko desfilea egiteko. Pixka bat geroago, Arbulu konpainia eratu zuen Euzko Gudarozteak. Gure aitak kontatu zidanenez (aita Ibaizabal batailoiko tenientea zen), biak joaten ziren oinez etxetik Portugaletera euskara ikastera. Ikasketak haiek gerrak lurperatu zituen.

'Hezurak barik duintasuna dago gaur hemen', esan zenuen zapatuan, hitza hartu zenuenean. Zer esan nahi du zuretzat aurkikuntza honek? Eta zer sentitu zenuen zapatuan?

Bai, jende askorentzat hezurak besterik ez dira azaltzen horrelako kasuetan. Francisco Etxeberriari irakurri eta entzun nion hilobietatik duintasuna berreskuratzen dela. Esan nahi nuena horixe zen: pertsona horien duintasuna, adorea, eskuzabaltasuna, askatasunare-

Felix Arbulu Bilbao, Zirardamendin hil zen gudarietako bat. Garaizabal konpainiako gudaria.

“Ez daukat hitzik baserriarrek egin zutena eskertzeko”

kiko grina, eta kasu horietan Euskadiren askatasunarekiko prestutasuna (dena ematerainokoa), ari garela berreskuratzen. Joan den larunbateko ekitaldi osoa hunkigarria izan zen, eta hitza hartu nuen, ez dakit kanpotik nola ikusi ninduten hara joan zirenek, baina nire barrua dar-dar batean zegoen. Dena den, zirrararik handiena aurreko larunbatean sentitu nuen, zenbait hezur azaldu ondoren, lehen burezurra azaldu zenean. Dena mugitu zitzaidan barruan.

Zirardamendi bertako baserriarrek lurperatu zituzten hilotzok orain 76 urte pasa. Haien lekukotzak ezinbestekoak izan dira hona arte iristeko. Zer esan nahiko zenieke?

Bai, ez dakit baserriar horiei zenbat bider eman dizkiedan eskerrak: Etxebarrin emandako hitzaldi batean, larunbatean gorpuzkinen aurrean, idatzitako hainbat artikulu txikitak. Hala ere, daukadan ustea da beti labor geratzen naizela. Ez daukat hitzik haiek egin zutena eskertzeko: Agote familiakoak, Bittorio eta haren aita zen Jose Inazio.



Elgoibarko Felix Etxeberria, afera honetan mugitzen hasi zen lehenetarikoa. Sentimenduak korapilatzen dira. Haiek ikustean, beraiekin egotean, hitzak ateratzen zaizkit ahotik, gehienak bihotzetik, baina ez ditut hitz horiek kontrolatzen; barneko sentimenduz beteta daude. Eurek besarkatzeko gogoia sentitzen dut, eta amaigabeko eskerrak sakonenak, beroenak eta maitagarrienak emateko. Zaila egiten zait hori guztia deskribatzen. Sentimenduzko mundua da.

Bittorio Agote, Gudariak lurperatu zituen Jose Inazio Agoteren semea



Zure aitak, Jose Inazio Agotek, lurperatu zituen zapatuan hobitik atera zituzten gudariak orain 76 urte. Zer dakizu egun hartaz?

Bai, gure aita ibili zen gudariak lurperatzen, baina ez bakarrik. Inguruko baserrietako lagun gehiago ere aritu ziren. Gertatzen dena da azkena topatu dituzten gudari horiek lurperatu zituzten lur saila gure aitarena zela, eta horrexegatik, beharbada, gogoan iltzatuta zeukan han ikusi zuena. Gure aitak egunetan ikusi zituen gudarien gorpuak lurtean. Zortzi-hamar egunean bai behintzat, eta lurperatu ostean ere, egunero pasatzen zen lur horietatik. Oso gogoan zituen haien aurpegiak eta non lurperatu zituzten haietako bakoitza, Errepublikaren banderarekin estalita. Garai hartan Ramon Galdos zegoen Elgoibarko Udalean, eta hark ekarri zuen gudariak lurperatzeko agindua. Jakin badakit gudariak eurek ere lurperatu zituztela han nonbait beste bi lagun, euren bi burkide, eta handik urte batzuetara burezur bat agertu zela inguru hartan.

Beste bi hobi ere lekutu dituzu zuk, baina Aranzadikoek egindako indusketetan ez da ezer agertu. Pena hori duzula entzun genizun zapatuan.

Bai, pena handia daukat gainera. Beti entzun nion aitari halako lekuan Errioxako miliziano bat lurperatu zutela. Leku zehatz bat izendatzen zigen beti aitak, baina han ez da ezer agertu, nahiz gu seguru-seguru egon han behar zuela. Entzunda daukat gestoriako Pedro Garcaren anaia eta miliziano errioxar hori elkarren ondoan zeudela bala hark milizianoa jo zuenean. Balak jo eta ordubete ingurura hil ei zen errioxarra. Egunean hiru-lau aldiz pasatzen ginen gu inguru hartatik, ardiekin atzera eta aurrera, baina etorri dira indusketa makinak eta ez da hezur bakar bat ere agertu. Pena horixe daukat. Jakizu zer gertatu den 76 urtean! Pinuak ere sartu dira, lurra ere mugitu dira, eta animaliek eurek ere mugituko zituzten beharbada hezurak. Batek daki!

Zuk emandako argibideei esker iritsi dira hein handi batean lau gudari horiengana, baina kontaguzuz zelan izan den guztia.

Luzea da. Orain 30 urte egin behar da atzera. Orduan sei gudariaren gorpuak atera zituzten lurpetik Zirardamendiko pagadian, eta orduan hasi zen hau dena mugitzen. Paco Etxeberria Aranzadikoa sarri etorri da geroztik gurera, informazio eske eta ingurua aztertzerako.

Zer gogoratzen duzu ordukoaz?

Jose Maria Otsa de Txintxetru izeneko gizon bat etorri zen gurera Bilbotik, eta paraje horretan bere sei lagun hil zirela aitatu zion gure aitari. Eta gure aitak baietz, halaxe zela, berak lurperatu zituela. Handik egun batzuetara berriro agertu zen Txintxetru, argazki batzuk eta ‘Pagadi honetan hildakoak goian begoz’ zioen gurutze bat hartuta. Argazkiak ikustean gure aitak ez zuen inolako zalantzarik egin, eta haietako ba-

“Poza eta lasaitasuna hartu dut”

koitza non lurperatu zuten zehaztu zion. Sei gorpu ziren, bi zulotan lurperatuta. Haiek denak orain 30 urte atera zituzten, eta Derioko kanposantura eraman zituzten. Derioko hilerriko bertako langileak etorri ziren. Historia gogorak ziren gudari haienak guztienak. Juan Zabala gudaria, esaterako, seme jaioberria ikustetik zuzenean etorri zen Zirardamendiko pagadira, eta aita izan eta biharamonean hil zuten reketeez. Semea bera etorri zen hezur haiek atera zituzten egunean, eta gogoan daukat zera esan zuela, hunkituta: “Zein ondo egon diren hemen pagadian, txorien eta kilkerren kantuak entzuten”.

Ez zen erraza izango orduan ere.

Ez zen erraza izan, ez. Esnaola sendagileak eman zidan neri Zirardamendiko gudarien gorpuak ateratzeko Donostiako Gobernu Zibilak emandako baimena. Tragedia hark ez zuen inoiz gertatu behar. Bilbo-ko koarteleko Gareñanoko soldaduak zeuden inguru hartan Errepublikaren alde borrokatzen. Gudariena gertatu aurreko egunetan, baina pauso bat atzera egin zuten, baina gudari haiek jakin ez halakorik, eta Urkaregira iritsi zirenean zuzenean jo zuten Zirardamendiko pagadira haiekin bat egitekotan. Eta zera, hurbil-hurbiletik hil zituzten reketeez.

Zer entzun izan duzu zuk gudari haiei buruz?

Bizimodu txarra zutela. Aldatzeko erroparik ere ez zuten. Gurera etorzen ziren erropak sikatzera, eta geuk lagatzen genizkien geureak. Jatekorik ere ez zuten. Parean harrapatzen zutena jaten zuten. Ardiren bat hil, eta huraxe, baina, jakina, ardia hil larrutu eta preparatzeko ataraiu kontua zenbat denbora behar zuten. Gero, bai. Gero, frontea hemen egonkortu zenean, mandazainek ekartzen zieten jatekoa-eta. Kalamuatik eta Mutrikura bitartean 60.000 boluntario italiar jarri zituzten aurkariak. Egunean hamar pezeta kobratzen zituzten, bost pezetako zilarrezko bi txanpon, eta Errepublikaren alde zebiltzanek, ezer ez.



Goian, omenaldian parte hartu zutenak gudariak lurperatutako lekura bidean, ikurriñak hartuta. Behean, Iñaki Odriozola, Bitorio Agote, Felix Etxeberria eta Hodei Otegi, eta hirugarren argazkian, hainbat lekuko eta Aranzadikoak, gorpuzkinak agertu diren lekuan.

Zer sentitu zenuen lehenengo hezurra lur azalera agertu zenean?

Ardura handia sentitzen nuen. Aurrez segurutzat airtatu nizkien lekuetan ez zuten ezer topatu, eta ustez seguru egon arren, duda ere egiten nuen azkenerako. Atsekabetuta ere banengoen egia esan, miliziano errioxarra topatzerik ez genuelako izan, eta horrenbeste jende ekarri hona arte, eta ez ezer ez topatzea... Eta horregatik, lehenengo hezurra bistaratu zenean poza eta lasaitasuna hartu nuen. Indusketa makina lurra baztertzan ari zen, eta halako batean, Pacok [Etxeberriak] *alto* agindu zion. Hura zen poza! Badakit hori etxe koantzat handia dela, gainera. Horren adibidea da garai bateko Bilbo inguruko gudariak, EAJkoek, oso estimutan izan gaituztela gu. Nire aita hil zenean ere, meza atera zioten Elgoibarren, pentsa!

Gerrarekin lotutako anekdota bat ere baduzu zuk...

Gogoan daukat gure etxean botiletan gordetzen zituztela mendian topatutako balak. Botila batean reketeen balak, beste batean Molaren tropek erabiltzen zituzten balak, beste batean gudariena, eta beste batean milizianoena. Eta 5 bat urte nituenean, nahigabe irentsi egin nuen nik bala haietako bat. On Joxe Izagirre sendagilearengana eraman ninduten, baina hurrengo egunean berez-berez irten zen bala hura, eta listo. Urte askoan isilik gorde da dena, beldurragatik.

Zenbat gorpu daude ateratzeko?

Asko. Nik neuk dakidanak beste zortzi bat bai. Batetik, miliziano errioxarrarena. Bestetik, beste lau gudari daude beste hobi batean; gudariak eurek lurperatutako beste bi lagun ere hor nonbait daude lurperatuta, eta beste gudari baten gorpua ere badago, Zumeta baserriko lurretan. Hori atera beharko dugu hurrengo, besteekin ez dugu zortzerik izan-eta.

Ainara Argoitia

Oharra: Elgoibar 1936 datu bila dabil, eta gai honekin lotutako informazioa duen edonork honako bide hauek ditu haiekin harremanetan jartzeko: elgoibar1936@gmail.com edo 605 772 285 (Hodei).

Eduardo Arrietak hartu du CD Elgoibarko presidente kargua

11.338 euroko irabaziak izan ditu klubak denboraldi honetan

Eduardo Arrietak hartuko du Miguel Martin Molinsek lagatako postua CD Elgoibarren presidentetzan. Bederatzi laguneko zuzendaritza taldea aurkeztu zuen Arrietak. Datorren denboraldirako helburuen artean, klubeko jokalariek guztien prestakuntza sustatu beharra nabarmendu zuen, baina horrez gain, Haundi 3. mailan mantentzea eta herriko jokalariei lekua egitea izango dira lantalde horren konpromisoak. Manu Ibarluzea zuzendaritzako kideak azaldutakoaren arabera, Igor Gordobil izango da datorren denboraldian ere Haundiko entrenatzailea, eta dozena bat jokalariek ere taldean jarraituko dutela jakinarazi zuen.

Ekonomiari dagokionean, 11.338 euroko irabaziak izan ditu CD Elgoibarrek aurtengo denboraldian, eta klubaren ondarea 167.479 eurokoa da. Emaiza positiboa izan den arren, gastuak murrizteko ahalegina egingo dutela adierazi zuen presidente berriak.



Eduardo Arrieta ezkerrean.

Arg.: Aitor

Datorren barixakuan egingo dute Nahaste Borraste proba



Kimetz elkarteak antolatuta, datorren barixakuan (ekainak 29) egingo dute Nahaste Borraste proba. 16 urtetik gorako edonork eman dezake izena, eta bakoitzak hiru probatan lehiatu beharko du: Lehenik, bizikletan; ondoren, 25 kiloko zakua lepoan hartuta egin beharko dute korrika, eta azkenik, zakurik gabeko lasterketa egingo dute. Proba 19:00etan hasiko da Plaza Handian, eta egunean bertan ere egongo da izena emateko aukera.

Euskadiko Motokros Txapelketa jokatu dute domekan, Idotorben

Elgoibarko Offroad moto-klub berriak antolatuta, Euskadiko Cosscountry txapelketa jokatu dute domekan, Idotorben. Euskal Herriko ehun piloto inguruk hartuko dute parte, bi orduko erresistentzia proban. San Pedro jaietako egitarauaren barruan sartu dute ekitaldia, eta frontoiaren atzeko aldeko berdegunean egingo dute proba. 10:30ean hasiko dira entrenamenduak, eta 11:30ean hasiko da txapelketa. Sarre-ra doan izango da.

Elgoibarko motozale talde gazte batek sortu du Offroad moto-kluba, eta aurrerantzean moto lasterketa gehiago antolatzeko asmoa dutela aurreratu dute.



Iñigo Larizek bigarren egin du Txindokiko kilometro bertikalean

Euskal Kopako lehen postuan dago Lariz

Domekan jokatu zuten Txindokiko kilometro bertikala, eta Iñigo Lariz elgoibartarrak bigarren lekuan amaitu zuen proba, 35:32 denborarekin. Hasian irabazleak baino 32 segundo gehiago behar izan zituen Larizek proba amaitzeko, eta 30 segundo atera zizkion helmugan Mikel Beunza hirugarren sailkatuari. Bigarren postu horri esker, euskal kopako lehen postuan dago korrikalari elgoibartarra, txapelketa amaitzeko bi probaren faltan. Larritzekeo paraje ederrean eguna eguzkitsu atera zen arren, laster sartu zen behe-lainoa eta korrika egiteko berorik ez zuten izan korrikalariak. 155 lagunek hartu zuten parte proban.



Urriaren 12ra atzeratu du Morkaiko Zuberoara irteera

Zuberoara irteera antolatuta zeukan Morkaiko mendizale elkarteak joan zen astebururako, baina urrira atzeratu dute. Urriaren 12tik 14ra egingo dute beraz, irteera. Maule inguruan egingo dute ibilaldia, eta Chateau Libarrenx-eko jauregian hartuko dute ostatu. Oinez zein mendi bizikletaz egiteko ibilbidea izango da. Bazkideek 75 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek 85 euro. Informazio gehiagorako www.morkaiko.net webgunea kontsultatu daiteke.

Herriarteko txapelketatik kanpo geratu da Elgoibar

Kanporaketa zaila zeukan Elgoibarrak Herriarteko Pilota Txapelketan, eta ezin izan du aurrera egin. Joaneko partidak 3-0 galdu zituen Hernaniren kontra, eta joan zen barixakuan 0-3 galdu zuten itzulerako partidetan. Hortaz, 6-0 izan da azken emaitza, eta Elgoibar Herriarteko txapelketatik kanpo geratu da.

Meabek eta Loiolak irabazi dute 10Bai Pilota Txapelketako finala



22-16ko emaitzarekin irabazi zuten Meabek eta Loiolak 10Bai Pilota Txapelketako finala, Agirrebeña eta Atanoren kontra. Partida gogorra eta berdindua izan zen, baina azkenean, sanmigeldarrak nagusitu ziren. 10 koadroko frontoia herrian behar dela aldarrikatzen du elkarteak. Une honetan, emakumezkoen pala txapelketa dago jokoan.

Amaitu da Lagunak Pilota Txapelketa



Joan zen barixakuan jokatu zituzten Lagunak Pilota Txapelketako finalak, Kalegoen plazako frontoian, eta ondorengoak izan ziren emaitzak:

- Mayora 18 / Unai Sanchez 13 (aurre-benj.)
- Julen Urruzola 18 / Danel Zubizarreta 3 (Benj.)
- Mikel Astigarraga 18 / Urko Iriondo 5 (Aleb.)
- Jon Urruzola 18 / Iker Odria 7 (Inf.)

Regensburgeko Ironman proban hartu du parte Martin Dominguezek

1.400 lagun inguruk hartu zuten parte

Martin Dominguez elgoibartarrak Regensburgeko (Alemania) Ironman proban hartu zuen parte joan zen asteburuan. 3,8 kilometro igerian, 18,2 kilometro bizikletan eta amaitzeko, 42,2 kilometro korrika egin behar izan zituzten partaideek. 1.400 lagun inguruk hartu zuten parte proban, eta elgoibartarra 399. postuan helmugaratu zen, ondorengo denborekin. Igerian: 01:05:42, bizikletan: 05:42:38 eta korrika: 03:57:47. Gogor entrenatu du Martin Dominguezek proba hori prestatzeko, eta "pozik" itzuli da egindako lanarekin. Horrelako proba bat egiteko prestaketa "ona" ezinezkoa dela adierazi du, eta oro har, maila handia egon dela azaldu du. Aspalditik zeukan Martin Dominguezek Ironman bat egiteko gogoia, eta bere



nahia bete du. Orain atsedena hartuko du, eta uda ostean hasiko da berriz lehiatzen, hemen inguruko proba herrikoietan.

Imanol Alvarezek irabazi du Urretxuko Txirrindulari Lasterketa



Alebin eta infantil mailako txirrindulari lasterketa jokatu zuten joan den asteburuan Urretxun, eta Lagun Taldea elkarteke Imanol Alvarez elgoibartarrak irabazi zuen. Denboraldiko azken lasterketa izan zen Urretxukoa, eta elgoibartarraren denboraldia borobiltzeko balio izan zuen garaipen horrek. Alvarezek Mendaroko Txirrindulari saria irabazi du aurten, eta bigarren postua eskuratu zuen Oñatiko proban.

Uztailaren 7an egingo dute Javier Ezenaroren omenezko txirrindulari proba, Mendaron

Javier Ezenarro memoriala uztailaren 7an jokatu da, Mendaron. Aurten, gainera, Gipuzkoako Txapelketa egingo da jokoan. Lasterketa Mendaron hasi eta Mendaron amaituko da, eta orotara, 81 kilometro egin beharko dituzte partaideek. Osintxuraino egingo dituzte bi buelta lehenik. Ondoren, Debarantz hartuko dute, eta Sasiolatik Kalbario gainera igoko dira, Mutrikura jaisteko. Ondoren, Olatzetik igoko dira berriz Kalbario gainera, eta handik jaitsiko dira Mendarora.

Ekainaren 26a da Debarrena BTT martxan izena emateko azken eguna

Uztailaren 1erako antolatu dute Debegeesak eta Elgoibarko Kirol Patronatuak Debarrena BTT martxa, eta ekainaren 26a izango da aurrez izena emateko azken eguna. Interesatuak www.debarrenaturismo.com webgunean eman dezakete izena. Dena dela, uztailaren 1ean bertan ere egongo da izena emateko aukera, proba hasi baino lehen. 9:00etan hasiko da martxa Mintxetako kirol gunean. Partaideek bi ibilbide izango dituzte aukeran, 25 kilometrokoa eta 45 kilometrokoa. Biak ere Karakate inguruan egitekoak izango dira. Partaide guztiei Mintxetako estali gabeko igerilekuetarako sarrerak oparituko dizkiete, eta antolatzaileek bazkaria prestatuko dute bertaraten diren guztientzat. Bazkalostean, Melissa & The Jacks taldearen kontzertua egingo da.

Gaur da Sanlo eskubaloi eskolan izena emateko azken eguna

2002an jaiotako Elgoibarko, Mendaroko eta Debako umeek Sanlo eskubaloi eskolan izena emateko aukera dute. Interesatuak Olaizaga kiroldegira agertu daitezke 18:00etatik 19:00etara bitartean, eta bestela, 943 748 921 telefonora deituta edo sanolatxo@gmail.com helbidera idatzita eman daiteke izena.

‘Rusini’ antzezlanaren estreinatuko du Taupada antzerki taldeak gaur, Herriko Antzokian

Taupadak 34 urte egin ditu aurten, eta hau 20. antzezlanaren dute



Herriko Antzokian egin zuten entsegua martitzenean.

Rusini antzezlanaren estreinatuko du Taupada antzerki taldeak gaur, Herriko Antzokian, 22:15etik aurrera. 34 urteko historian hogeigarren antzezlanaren du honako hau Taupadak. Edurne Lasa zuzendariak jakinarazi duenez, tragi-komedia bat da *Rusini*. J.L. Alonso de Santosek idatzitako obra da, eta Angel Ugarteburuk euskaratu du. Hondoan jota dagoen zirko berezi bati buruzko obra da. Etsita daude zirkoan, baina taldera batu den pailazo batek itxaropena ekarriko du, eta zailtasun guztien gainetik, maitasun istorio erromantiko bat gailenduko da azkenean. Zuzendariak esandakoaren arabera, *Rusini* antzezanari ez zaio alde komikorik falta, nahiz eta komizitate tristea eta batzuetan infantila izan. Giro mizkatza eta sentimentalismo hunkigarria dira nagusi. Lau ekitaldi eta epilogoan Rusini zirkoaren azken egunak ikusiko ditugu, eta baita zirkoa aurrera ateratzeko artistek egingo duten ahalegina. Bederatzi lagunak osatzen dute Taupada, eta denen artean emango diote bizia *Rusini* zirkoari.

Ana Perurena, antzezlea



Taupada taldea osatzen duten bederatzita antzezle horietako bat da Ana Perurena. Orain dela urtebete inguru iritsi zen taldera, eta gaur gauean egingo du debuta taula gainean.

Gaur gauean egingo duzu debuta. Urduri zaude?

Ez, une honetan lasai nago. Jende aurrera iriteteke gogoan daukat.

Jende ezagunaren aurrean debuta egiteak ez al du ikararik ematen?

Desberdina izango litzateke, adibidez, debuta Bergaran izatea, han inork ez nauelako ezagutzen. Baina, aldi berean, jende ezagunaren aurrean antzeztea polita da.

Zein paper beteko duzu Rusini zirkoan?

Andrea izango naiz, Tonisko handiaren semearen emaztea. Zirko honetan era praktikotik batean ikusten dituzte gauzak.

Andreak eta Anak badute antzekotasunik?

Beharbada, gauzak ikusteko praktikotasun hori badaukagu biok.

Nola sartu zinen Taupadan?

Bizitzaren gorabeherak direla eta, orain

dela urtebete inguru pentsatu nuen bazela beste mundu batetan sartzeko momentua. Probatu egin nuen, eta oso pozik nago. Oso gustura joaten naiz.

Zer da zuretzako antzerkia?

Lana da, lanik gabe ez dagoelako ezer mundu honetan. Baina deskonektatzeko modu bat ere bada, eta gauzak ikasteko bidea ere bai. Edurnek eta Larrak pazientzia ikaragarria dute gurekin, oso profesionalak dira eta benetan saiatzen dira guri erakusten.

Zaila da aktore izatea?

Oso zaila. Ni ez naiz aktore, ikasten ari naiz. Daukadan onena emango dut, baina aktore izatea oso urrun daukat oraindik. Gogoan eta ilusioa edukitzea da garrantzitsuena, eta gainerakoa ikasi egin daiteke.

Gaur hasi eta astelehenera bitartean ospatuko dituzte San Joan jaiak Altzolan

Mendaron ere piztuko dute San Joan sua, Herriko Enparantzan

San Joan bezpera bihar da, baina jaiak gaur hasiko dituzte Altzolan. 22:00etan zabalduko dute txosna, eta DJ festa egingo dute gauean. Bihar, urtero legez, sal-bea egingo dute 20:00etan, eta ondoren, San Joan arbola jarriko dute Karmen enparantzan. 23:00etan piztuko dute San Joan sua ibaian, eta ondoren dantzaldia egongo da, Alai taldearekin.

Domekan, San Joan Egunean, goizean goiz hasiko dituzte ekitaldiak. Portaletan San Joan adarrak jarriko dituzte, eta prozesioa, meza, herri kirolak, eta beste hainbat ekintza izango dituzte aukeran Altzolara bertaratzen direnek. Astelehenan amaituko dira jaiak. Egitarau osoa agendan irakurri dezakezue.

Mendaron, Herriko Enparantzan

In Leike aisialdi taldeak antolatuta, San Joan bezpera eguna ospatuko dute Mendaron ere. 19:30ean umeentzako karaokea egingo dute, eta segidan, ogitartekoak banatuko dizkiete plazan biltzen diren umei. 22:00ak aldera piztuko dute San Joan sua Herriko Enparantzan, eta umeek suaren gainetik sal-



to egiteko aukera izango dute.

Elgoibarren ez dago San Joan suak pizteko lekurik izendatuta, baina Udaltzaingotik jakinarazitakoaren arabera, suak piztekotan, Maltzagarako bide gorria hasten den ingurune horretan piztuko dituzte.

Burdinolen Ibilbidea antolatu dute domekarako, 'Arbasoen deia' egitasmoaren barruan



Dolmenen Ibilbidearekin hasi zuten joan zen astean Arbasoen deia egitasmoa Debegesak eta Debako Debanatura elkarteak, eta asteburu honetarako antolatu dute bigarren irtee-

ra. Burdinolen ibilbidea egingo dute domekan, Debarreneko industria eta erreminta makinaren kultura ezagutzera emateko. Mendaroko tren geltokitik abiatuta, Kilimoi bailarara abiatuko dira bisitariak eta bertan ibilbide labur eta erraza egingo dute burdinola, karobi eta bide zaharren aztarnak jarraituz. Hain zuzen, historikoki eta etnografikoki Debarrenean bailara honek duen garrantziaren adierazle dira elementu horiek. Bailara hau ezagutu ostean, Mendarotik Elgoibarrera trenez etorriko dira, Makina Erremintaren Museoa ezagutzeko. Ibilbidea oinez eta trenez egingo da, eta gida batek emango ditu azalpenak. 10:00etan batuko dira, Mendaroko tren geltokian.

Gazteen Eguna antolatzeko beste bilera bat egingo dute domekan

Elgoibarko Gazte Asanblada hasi da sanbartolomeetako Gazteen Eguna antolatzen, eta domekan bigarren bilera bat egingo dute, 19:00etan, Gaztetxean. Joan zen astean hogei bat lagun elkartu ziren, eta datorren domekarako haiek eta egon ez zirenak deitu dituzte. "Gazteen eguna gazteok elkarlanean antolatzea baino ezer ederragorik ez dagoela uste dugu, eta elkarrekin lanean ondo pasatu ez ezik, asko ikasten dugulako", esan dute antolatzailleek. Horri lotuta, Gazteen Eguneko irudi lehiaketa antolatu dute. Irudiak Elgoibarko Gazte Asanbladak antolatzen duen egitaraua islatu beharko du. Lanak ekainaren 29rako entregatu behar dira, Gaztetxean. Informazio gehiago, elgoibarkogazteasanblada.blogspot.com.es/ helbidean.

LANA

ESKAERA

- Neska gaztea umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. Esperientzia daukat. ☎ **663 657 870**
- Emakumeak umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko prest. ☎ **648 603 029**
- DBH2ra arteko klase partikularrak ematen ditut. Uztailean, goizez. ☎ **688 664 727**
- Neska lan bila. Umeak edo nagusiak zaindu, garbitzaile edo zerbitzari lanak egingo nituzke. Orduka edo interna. Erreferentziak ditut. ☎ **659 101 631**
- Emakume gaztea lanerako prest. Umeak zaindu, zerbitzari edo garbitzaile lanak egingo nituzke. ☎ **652 779 800 / 628 238 955**
- Gizona lanerako prest. ☎ **685 212 060**
- Alemanierako klase partikularrak ematen ditut. Adin guztietako pertsonentzako. Metodo atsegina. ☎ **670 793 312**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko prest eta garbiketarak edo saltzaile lanak egiteko ere bai. Papelak eta erreferentziak ditut. ☎ **636 419 814**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest, udan. Orduka edo interna. ☎ **698 632 922**
- Emakumea lan bila. Ileapaintzaile eta garbitzaile lanetan esperientzia handia. ☎ **663 430 810**
- Emakumea nagusiak zaintzeko prest. Orduka. ☎ **686 578 228**
- Neska gazte euskalduna uztailean umeak zaintzeko prest. ☎ **697 322 306**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarak edo sukaldari laguntzaile lanak egiteko prest. ☎ **699 609 190**
- Neska umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarak egiteko prest. ☎ **699 232 823**

- Neska umeak edo nagusiak zaindu edo garbiketarak egiteko prest. ☎ **690 925 929**
- Emakumea umeak edo nagusiak zaintzeko edo garbiketarak egiteko prest. ☎ **669 513 926**
- Haur Hezkuntzako ikasle euskalduna umeak zaintzeko prest. ☎ **674 862 116**
- Gizona edozein lan egiteko prest. Lanerako gogo handia daukat. ☎ **648 505 985**
- Gizona nagusiak zaintzeko edo baserrian lan egiteko prest. ☎ **616 260 793**
- Emakume euskalduna nagusiak zaintzeko prest. Esperientzia handia. ☎ **685 729 790**
- Esperientziadun emakumea gauez nagusiak zaintzeko prest. Papelak legez ditut. ☎ **670 551 133**
- Esperientziadun neska enpresa txikian eta autonomoen kontabilitate eta zerga aitortpen lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **626 642 965**
- Bi neska euskaldun, uztailean klase partikularrak emateko prest. Ingelesa izan ezik. ☎ **671 403 213**
- Bi neska euskaldun, uztailean umeak zaintzeko prest. ☎ **630 055 077**

ETXEBIZITZAK

- Atikoa alokatzen dut San Frantzisko kalean. Logela bat, komuna, egongela, sukalde-jangela. Dena berria. ☎ **680 707 639**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **649 360 378**
- Pisua hartuko nuke alokairuan Elgoibarren. ☎ **620 664 454**
- Teilatu altua duen ganbara alokatzen dut Elgoibarko erdialdean. Bi logela, sukaldea, egongela, komuna, argi naturala, igogailua. Altzariekin. ☎ **616 111 603**

BESTELAKOAK

- Estimu handitan ditudan belarritakoak galdu ditut, King-Kong eta Maala bitartean. ☎ **943 740 956**
- Txankakuako autobus geltokian dagoen lorontzi batean Unibertsitateko apunte batzuk aurkitu ditut. Zubi Ondo elkartean utzi ditut.
- Stokke Sleepi (mini + sehaska) zuria salgai. Egoera oso onean, gutxi erabilia. 350 euro. ☎ **648 203 775 (19:00-20:00)**

LOKALAK ETA GARAJEAK

- Pabilioia alokairuan Ibaicitartean. Egokituta eta beteta, garabia barne. 400m2. A7 pabilioia. ☎ **659 574 197**
- Garaje marraduna alokairuan, Leku Ederren. ☎ **943 741 715**


KINTOAK

- 1959an jaiotako mendarorrek edo Mendaron bizi direnek kinto bazkaria egingo dute uztailearen 7an, Landa jatetxean. Interesatuak ekainaren 30erako eman beharko dute izena. ☎ **685 720 529**
- 1972an jaiotako elgoibartarrek kinto bazkaria egingo dute irailaren 15ean, Sigma jatetxean. Bolutokian aterako dute erretratua, 13:00etan eta ondoren luntxa egingo dute Tantaka tabernan. Interesatuak 60 euro sartu behar dute, Euskadiko Kutxako kontu korronte honetan: 3035 0007 22 0071124579.

IRABAZI AFARI BAT ZURE KUADRILLARENTZAT

Sagardoarekin lotutako hitz, esamolde edota esaldiak biltzen ari gara. Inoiz entzunak, zein asmatuak.



Bidali nahi adina proposamen:
lehiaketa@sagardogorenak.com  #gorenak

SARIA: 8 lagunentzako afaria GORENAK
taldeko zuk nahi duzun sagardotegian.

Epea: Uztailearen 5a baino lehen.
(Uztailearen 8ko Berrian jakingo da irabazlea).

Epaimahaia: Joxerra Garzia, Arantxa Iturbe
eta Xabier Paya.

WWW.SAGARDOGORENAK.COM




• Zuk bai balio duzula! Zorionak, **guapa!** Koskiren eta amaren partez.



• Malen, maitea, oso ondo pasatu genuen zure bosgarren urtebetetze egunean. Patxo asko, bereziki, ahizpa Juneren partez.



• Zorionak, **Oier**, gaur 2 urte egin dituzulako. Muxu handi-handi bat etxekoan, eta bereziki, Enararen partez.



• Zorionak, **Lis Amaia Figueroa Ramirez**, domekan 2 urte egingo dituzulako. Gurasoen eta familiakoan partez.



• Zorionak, **Nora**, ostegunean 5 urte egingo dituzulako. Patxo handi bat etxeko guztion partez.



• Zorionak, **Gorane**, asteartean 6 urte egingo dituzulako. Oso ondo pasa! Muxu bat familiakoan, eta bereziki, lkerren partez.



• Zorionak, **Ander** maitea, urtetxo honetan pozez bete gaituzulako. Etxekoek, eta bereziki, asko maite zaituen anaia Markelek.




• Zorionak, **Lucia**, ekainaren 18an 8 urte egin zenituelako. Muxu handi bat aitaren eta amaren partez.



• Zorionak, **Edume eta Julen!** Oso ondo pasatuko dugu eguna! Zoriontsu izan. Patxo handi bat, etxekoan partez.



• Zorionak, **bikote**, zuen urtebetetzea izan delako. Oso ondo pasa! Familiakoan partez.



• Zorionak, **bikotel** Azkenean iritsi da zuen ezkontza eguna. Ondo pasa! Koadrilakoan partez.



• Zorionak, **Maider**, bihar 5 urte egingo dituzulako. Amatxo, aitaxo eta Adurren partez.



• Zorionak, **aitaxo eta Iraitz!** Primeran pasako dugu igandean! Opariak zain dituzue! Patxo handi bat, bereziki, Oihan eta Eleneren partez. Muaaaaa!



• Zorionak, **bikotel** Iritsi da zuen eguna! Zorte on, hastera zoazten abentura berri honetan. Maria, Lara, Yoana, Alba eta Olga.



• Zorionak, **bikote**, zuen 8. eta 5. urtebetetzean.



• Zorionak, **aita!** Ondo pasa zure 50. urtebetetze eguna! Paula, Diego, Jorge eta ama.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU

Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€. hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK

Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€. hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira BARRENEko bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.


PEDRO MIGUEL URRUZUNO, S.KOOP
OHIKO BATZAR NAGUSIA
 Deialdia
 Eguna : 2012ko ekainaren 26a
 Ordua: 20:30ean lehen deialdian eta 21:00etan bigarrenan
 Tokia: Ikastola. Ermuaranbide, 7 – Elgoibar

Jarri ezazu zure publizitatea
BARRENen edo www.elgoiBARREN.net
 webgunean

ARREN
astekarian
 943 744 112
barren.publi@elgoibarkoizarra.com

22 barixakua

Musika

18:30 Kale Kantariak

Azken zapatuko ferian abesteko entsegua, Kultur Etxeko sotoan.

Antzerkia

22:15 'Rusini'

Taupada antzerki taldeak aurkeztuko du, Herriko Antzokian. Sarrera, 6 euro.

23 zapatua

Xakea

16:00 Lagunarteko euskal zirkuitoko xake txapelketa
Lerun jabetxean.

24 domeka

Kirola

10:00 Urkiolamendira irteera
Ikastolako Guraso Taldeak antolatuta, Ikastolatik irtengo dira.

SAN PEDRO JAIK IDOTORBEN

24 DOMEKA

Cross Country txapelketa

9:00 Txapelketaren

egiaztapenak

10:30 Entrenamenduak

11:30 Proba

14:30 Sari banaketa

28 EGUENA

19:00 Kanpai jotzea

21:00 Auzotarren afaria

30 ZAPATUA

16:30 Umeentzako jolasak eta zezentxoak

17:00 Bolo txapelketa

18:00 Nagusientzako

jolasak

20:00 Triki kalejira

21:00 Lagunarteko afaria

22:00 Izer, Alabier eta

Lutxurdixorekin gaupasa

Goizaldean, txokolatada

29 BARIXAKUA

11:00 Prozesioa eta meza nagusia

Ondoren, hamaiketako

12:30 Pilota partidak

14:00 Auzotarren eta

jubilatu bazkaria

21:00 Lagunarteko afaria

23:00 Mus txapelketa

1 DOMEKA

10:30 Meza

Ondoren, Txalaparta,

Ttakun bikotearekin eta

euskal dantzak, Haritz

dantza taldearekin.

17:30 Idi demak



SAN JOANAK ALTZOLAN

22 BARIXAKUA

20:00 Txosna

23:00 DJ festa

23 ZAPATUA

14:30 Txapliguak eta kanpai jotzea

20:00 Salbea

20:30 San Joan arbola jartzea

23:00 San Joan sua ibaian

23:30 Dantzaldia 'Alai'

taldearekin

4:00 Txokolatada

24 DOMEKA

8:00 Portaletan San Joan adarrak jartzea

11:00 Prozesioa eta meza santua

Ondoren, hamaiketako

13:00 Herri Kirolak

16:30 Mus txapelketa

17:00 Auto telegidatu

erakustaldia

18:00 Zezentxoak eta poniak

19:30 Parrila jana

22:00 Karaokea

25 ASTELEHENA

12:00 Umeentzako jolasa

15:00 Herri bazkaria

Ondoren, txokolatada



Ekainaren 27an

MALTZAGARA IRTEERA bizikletan!

10:00etatik 12:00etara.

Izenemateak ludotekan

Gogoratu domeka honetan amaitzen dela **MUNDAKAKO EGONALDIRAKO** izenemate epea. Azkar ibili, aurten plaza gutxi daude-eta!



OKINDEGIA

24 domeka IBARRENEA

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

22 Etxeberria
23 Fernandez
Goizez: Barrenetxea
24 Fernandez
25 Yudego
26 Zabaleta
27 Barrenetxea
28 Ibañez

Gauetz

22:00 - 9:00

Etxeberria
Etxeberria
Etxeberria
Yudego
Garitaonandia
Barrenetxea
Barrenetxea

Fernandez

Herriko enparantza 4,
Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

TXIKI EGUNEKO BAZKARIA

ELGOIBARKO IZARRAREKIN

Bazatoz bazkaltzera txarangaren kalejira
amaitu ondoren? 17:00etan, Sigmako aparkalekuan
Animatu, primeran pasako dugu-eta!

MENUA:

- Lehenengo platera: arroz-entsalada
- Bigarren platera: okela gisatua patatekin edo barazkiez betetako berenjena gainerreak
- Postrea: Gazta-tarta
- Edariak: Sagardoa, ardo beltza eta ura

Izenematea Elgoibarko Izarran
edo Internet bidez egin behar da
(www.elgoibarkoizarra.com)
(Izena emateko azken eguna uztailaren 13a.
Izena ematean aukeratu beharko da
bigarren platera)

19 €

17 €

Elgoibarko
Izarrako
bazkideak



ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA

ELGOIBAR

Oraín BAI!

Azken etxebizitzak
San Frantziskon

Exebizitzak
trastelekuarekin

150.000 €-tik aurrera
+ BEZ %4

Bukatutako etxebizitzak
Sukalde ekipatua

Informa zaitetz konpromisorik gabe

943 74 44 67



G/ San Francisco 51, bajo.
Elgoibar

 **sukia**
Zure etxean zaude.
Estás en tu casa.

www.sukia.com